



Otehitzari biraka eta Ninika antzerkiak.- Sentsualitatea, gorputz hizkuntza eta dantza. Hiru osagai horiek batu zituen larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean EliralE konpainiak eskaini zuen "Ninika" haurrentzako antzerkiak. Printzipioz umeentzat zuzendutako antzerkia bazen ere, gurasoek gozatu ederra hartu zuten obrak iraun zuen bitartean. Kolore gorridun lurra eta elementu kubiko zuriz osatutako eszenografia simple batekin, obrak hasieratik amaierara harrapatu zituen ikus-entzuleak. Musikaren laguntzaz, hiru dantzarien gorputzek forma ezberdinak hartzen zituzten, sentsualak, estatikoak, tentsiozkoak... Momentuak eskatzen zuenaren arabera gorputzaren bidez adieraziz, komunikatuz. Bestalde, ostiral iluntzean "Otehitzari biraka" emanaldia eskaini zuen Kukaik areto berean. Oteiza artistaren bitzita abiapuntutat hartuta, dantza, antzerki ikuskizun ederra landu zuten.

3 GIZARTEA

Genero indarkeriaren aurkako eguna dela eta ekintza ugari

Emakumeen Zentro Zibikoak genero indarkeriaren aurkako bere harritxoa jarri nahi du urte bezala eta aste osoko egitaraua antolatzen du. Astelehene-tik igandera hitzaldiak, tailerrak, jokoa, antzerki eta noski elkar-rataratzea izango dira. Herri-arrak sentsibilizatu nahi dituzte. Horregatik gonbita egiten diete ekintzetan parte hartzeko.

4 BELTZAK

Errugbiak debuta egin du Michelingo zelai berrian

Larunbata egun handia izan zen herriko errugbi zaletuentzat. Kadete mailako Ostadar-Beltzak taldeak Euskal Ligako partidu ofiziala jokatu zuen lehen aldiz Michelingo berdegunean Gernikaren aurka. Partidu soila izateaz haratago, kiroltasuna, lehia, "hirugarren denbora" eta errespetuaren festa handia bilakatu zen.

5 PAILAZOAK

Herriko pailazoek 25. urteurreneko diska aurkeztu dute

Pirritx, Porrotx eta Marimototsentzat urte berezia da aurtengoa, hogeita bost urte igaro baitira sudur gorriak eta zapata handiak jantzi zituztenetik. Urteurrena ospatzeko, Orkestra Sinfonikoarekin grabatutako "Sentitu, pentsatu, ekin!" diska aurkeztu zuten larunbatean Villa Mirentxun, lagun ugariz inguratuta.



ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Orain sukaldeko tresneria salgai!

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Adituak dio



Miren Etxenagusia
Udal Musika eskolako
zuzendaria

Zer da bizitza musika gabe? Hitz egiten dugunean ere, bakoitzak bere berea duen musika tresna du, ahotsa. Bihotzak, bere taupaden bidez, erritmo bat markatzen digu denbora guztian. Oinez gabiltzanean ere, bakoitzak gure erritmoa eramaten dugu. Hitz egiterakoan, hizkuntza bakoitzak bere doinu eta erritmoa ematen die hitzei.

Imajinatzen al duzue, bertso saio bat inonaziorik gabe, pelikula bat musikarik gabe, telefono erantzungailua musika gabe, iragarkiak musika gabe, gazteak iPhone gabe... Gure inguruan DENAK dauka musika. Musikarik gabe bizitzea, kolore gabe bizitzea bezalakoa da.

Zer lirareteke festa edo ospakizunak musikarik gabe? Musikak gure gogoan eragiten du. Emozioak transmititzen ditu lasaitasuna, gogoa, pena, poza... Gure sentimenduetan eragiten du zuzenean musikak.

Egungo musika eta musika klasikoa bereiztu zergatik? denak dira musika azken batean. Musika klasikoa ikasten dutenek egiten dutenarekin disfrutatzen duen jendea da izan ere, ez da armonian aditua izan behar, Mozart, Brahms, Haendelekin gozatzeko. Normalean klasikoa jotzen gozateaz gain, gaur egungo musika entzunaz ere gozatzeko duten pertsonak dira. Musika eskolan dabil-tzan ikasleek esperientzia berri bat bilatzen dute, euren formakuntza alor desberdin batean zabaldu nahi dute, ondo pasa eta taldean lan egin, musika tresna bat jotzen ikasi, lagun berriak egin, abestu... Zer da bizitza musika gabe?

Musikariei esker ona

Santa Zezilia eguna da ostegunean azaroaren 22a, musikarien omenezko egun berezia eta noski herriko musikariekin gogoratu gara.

Gure herrian talde asko dira musikaren inguruan lanean dabilzitanak, abesbatzak, musika talde gazte zein beteranok, akordeoi orkestrak, Amalur... eta nola ez Udal Musika Eskola, herriko musikarien harrobi garrantzitsua.

Miren Etxenagusiak bere zutabearen esaten duen bezala zer da bizitza musika gabe? Egia da musikak gure inguruan duen presentzia handia dela, baina askotan ez zaio behar bezalako arreta eskaintzen, gure bizitzako soinu banda da, filmeetakoa bezalakoxea. Gure bizitzako pasarte asko musika, doinu, abesti jakinekin lotuta daudela ezin dugu ukatu,

orain gutxi pasatako Maratoiarekin gogoratzen garenean ez al zaizue "Bero-bero" burura etortzen? Uste dugu saihestezina dela. Gure gogoa ere aldatzeko gaitasuna du musikak tristetzeko, alaitzeko, korrika egiterakoan motibatzenko...

Kontzertu eta emanaldietan gustura entzuten ditugu musikariak eta zein ondo jo edota abesten duten erraz esan, baina ezkutuan geratzen da musikariek bakardadean zein taldean entsegutan egiten dituzten ordu ugariak. Omenaldia eta esker ona musikarien egunean zein bestelako egunetan merezi dute zalantzarik gabe, beraz eskerrik asko eskainitako momentuengatik eta zorianak zuen egunean! Azaroaren 20an musika eskolakoez 18:30etatik aurrera herrian barrena kalejira egingo dute eta denok gaude gonbidatuta.

Hitz eta pitz

Ba al duzu musika entzuteko ohiturarik?

**Batirtze Apeztegia**

Musika egunero entzuten dut, edozertarako, eta desberdina momentuaren arabera. Gimnasia baldin banoa, motibatzenko, musika funtzionala; egun lasaia baldin badaukat musika garaikidea; eta musika ambientalak, erritmikoak, asko entzuten ditut, denetarik, musika aldetik irekia naiz. Gustatzen zait kontzertuetara joatea ere, batez ere doan direnean.

**Kiko Markez**

Nire zaletasuna da, eta toki guztietan entzuten dut: etxean, autoan eta lanean ari naizela tabernan ere bai. Rock, punk, hardcore eta heavy-a gustatzen zaizkit batez ere. Musikarekin lotuta nago, "Kalean" taldean jotzen dut batera, azken 20 bat urteotan, eta Morarekin Bar Remigio osatu dugu, Bad Religion taldearen omenez, euren abestiak jotzeko. Hor jarraitzen dugu borrokan.

**Aitziber Ibarluzea**

Egunean zehar musika gutxi entzuten dut, nahi adina ez behintzat. Gustura, lasai, entzungo nuke, baina... Autoan irratia jartzen dut eta umeen musika pila entzuten dut, baina, nik nahi dudana gutxi. Kontzertuetara joatea gustatzen zait, gustura joango nintzateke, baina aspaldian ez naiz joaten. Euskal rocka gustatzen zait eta atzerriko talde batzuk ere bai.

**Lurdes Garcia**

Goizetik entzuten dut musika. Bruce Springsteen, Dire Straits, Ramones, garai hartako musikaren nahasketa. Utzi nuenean urduri sentitzen nintzen; orain musikak arropa janzteko ere laguntzen dit. Animatzeko Bruce da nagusi, "boss". Musika ikasteko aukerarik ez dut izan, batez ere gitarra joko nuke gustura eta zuzeneko kontzertuak gogoko ditut, taldea ezagutzen ez badut ere.

Iruditan

Musikak giroa alaituz



1875. urtean Oriako musikari-banda Brunet fabrikari.

Brunet lantegiak musika banda antolatzen zuten bere langileekin eta herriko zein inguruko herrien jaietan jotzera joaten zen banda XX. mendearen hasieran. Urrietako Sanmiguel festetan esaterako izaten zen Oriako musika-banda jotzen. Oriako dantzaldirik ez zegoenean Lasartera joaten ziren gazteak igande zein jai egun berezietan, Okendon egiten zen dantzaldira, Alpagateria delakora edota Iru-bidekora. Musikak egunerokotik ateratzen zituen herriarrak eta jai giroan murgildu, Santa Zezili eguna da musikariena eta egun honetan ospakizun bereziarekin omentzen da patroia oraindik ere.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

GIZARTEA

Ekintza ugari Zentro zibikoan

Azaroaren 25ean, genero indarkeriaren aurkako eguna da

Igandean, azaroaren 25ean, genero indarkeriaren aurkako eguna da. Lasarte-Oriako herritarrak kontzientzia hartu eta gaia kalera ateratzeko aste osoko egitaraua antolatu du Emakumeen Zentro Zibikoak.



Duela bi urte lazo zuria egin zuten. Aurten borobil morea egin nahi dute Okendon.

Urtero bezala, azaroaren 25ean Zentro zibikoak emakumeek haien hondar alea jarritz lagundu nahi dute genero indarkeriaren aurkako borrokan.

Horretarako sentsibilizazioa eta parte-hartzea zuzendutako jarduerak antolatatu dute. Hitzaldiak, antzerkiak, tailerrak... denetarik izango da eta herritarrei dei egiten diete hauetan parte hartzeko.

Aste osoko egitaraua

Astelehenean, azaroaren 19an, arratsaldeko 17:00etan emango zaio hasiera aste honi.

Lehenik, "Juegos Secretos" filma eskainiko da. Honetan AEBetako komunitate txiki batean bizi diren bi bikote gazteren miseriak eta frustrazioak azaltzen dira, baita haien auzoko gertakizunak ere.

Ostean, Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeutak, Clara Campoamor elkarteko Cristina Ramos abokatuak eta Udaleko Gizarte Zerbitzueta arduraduna den Maite Higuero filmeko gai nagus-

siak jorratuko dituzte hitzaldi batean.

Asteartean ere hitzaldia izango da, 18:00etan, Zentro Zibikoan. Honetan Nagore Vazquez psikologo eta psikoterapeutak "Emakumearen auto-estimua denboran zehar" gaia jorratuko du.

Astezkenean berriz, merkatura aterako dira. 11:30etatik aurrera, "Ausartu zaitez gizona bazara" jokua jarriko dute martxan.

Honetan gizonen parte hartzea dute helburu, izan ere, ekintzaren asmoa berdintasuna sustatzea da.

Ostegunean, berriz, Villa Mirentxun irriterrapia saioa izango da Nagore Vazquez eskutik, 18:00etatik aurrera.

Antzerkiak eta afaria

Azaroaren 23an, ostirala, azken urteetan bezala, Emakumeen Zentro Zibikoak antzerki taldearen lanaz gozatu ahalko da. Manuel Lekuona

na kultur etxean, 19:30etatik aurrera, "Novias Blancas" lana eskainiko dute eta 21:30etatik aurrera, afaria izango da, Araeta jatetxean. Afaria herriko emakume guztiak irekia da beraz izena ematea animatzen dituzte antolatzaileek. Prezioa 26 euro eta izena ematea Emakumeen zentro zibikoan asteazkena baino lehen.

Genero indarkeriaren aurka

Era berean, azaroaren 25ean, genero indarkeriaren aurka agertuko dira Zentro Zibikoak emakumeak.

Horretarako eguerdian Okendo plazan "Nik ezetz esaten dut eta zu?" lemapean elkarretaraztea egingo dute.

Herritarrak gonbidatzen dituzte ekintza honetan parte hartzea, guztiak emakume, gizon, zein haurrei irekitako ekintza baita. Parte hartu ahal izateko kamiseta, blusa edo txaketa morea eraman behar da.



KULTURA

Santa Zezilia eguna ospatzen

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako lagunek Santa Zezilia ospatzeko, azaroak 20 asteartean, 18:30etatik aurrera kalejira handia egingo dute Lasarte Oriako plaza eta kaleak musikarekin alaituz.

Musikari hauen lehenengo nota alaiak Manuel Lekuona Kultur Etxeko aterpean entzungo dira. Ondoren, Geltoki kaleitik Okendo plazarantz abiatuko dira. Bertan, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak egun hau ospatzeko propio Musika Eskola guztientzat idatzitako "Musikalean" interpretatuko dute. Musika Hizkuntzako ikasleak arituko dira kantari.

Lehenengo geldiuenean ondoren, San Pedro parrokiara joan eta bigarren saio txo bat han egingo dute. Eta bukatzeko, berriro Manuel Lekuona Kultur Etxera joango dira.

Musika eskolako arduradunek jakitera eman dutenez kalejira hau prestatzen, ikasle eta irakasleak irailetik aritu dira buru belarri. Era berean, eurria egingo balu, prestatutako kantak Manuel Lekuona Kultur Etxeko aterpean interpretatuko litzaketela adierazi dute.

EKONOMIA

Udalaren bilerak sektoreekin

Lasarte-Oriako Udalak udalerrirako buruzko diagnostiko sozio-ekonomikoa egin du, eta bertan ondorengo sektoreak identifikatu ditu ekonomia lokaleko garrantzitsuen artean: merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalak.

Horregatik Gizarte Zerbitzuak, Inmigrazioa, Lankidetzak, Enplegua eta Emakumea Saila, eta Parte-hartze sailak sustatuta parte-hartze prozesu bat abiatuko da sektore hauen baitan, Udala eta sektore hauen artean komunikazio bide eraginkorra irekitzeko, horren beharrak identifikatu eta dinamizatzen laguntzeko.

Horretarako, aste honetan prozesu horren lehenengo bilerak ospatuko dira Villa Mirentxun. Merkataritza sektoreko eragileekin astelehenean, azaroak 19, eguerdiko 14:00etan bilduko dira; asteartean, azaroak 20, goizeko 10:00etan ostalaritza sektorearen txanda izango da eta zerbitzu pertsonalak sektoreko kideekin asteazkenean, azaroak 21, eguerdiko 14:00etan izango dira.

Lehen bilera hauetan, batetik, parte-hartze prozesu honen inguruko informazio osoa emango da eta era berean, bertaritutako profesionalen proposamenak ere jasoko dira.

Hauetan parte hartzeko asistentzia alde zuzenetik konfirmatzea eskatzen da. Horretarako, d.avila@lasarte-oria.org helbidera idatziz, edota 943376183 telefonora deitu behar da.

ELKARTASUNA

Jostailuak jasoko ditu PSE-EE-k

PSE-EEk krisi garaian egoera larrian diren familien egoera latza arintzeko bere ekarpena egin nahi du urte amaierako hilabeteotan, eta bizikleta bat zozketatuko du erabiltzen ez dituzten jostailuak behar dituztenei banatzeko ematen dituzten artean. Gabon egunei begira egingo du jostailu bilketa solidario hau. Jasotako jostailuak Caritas erakundearen esku utziko dituzte, jostailuen banaketa garrantzitsua osoz egin dadin.

Astelehenean hilaren 16an hasi eta abenduaren 21era bitartean arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara zabalik egongo da PSE-EEren egoitza jostailuak jasotzeko. Berrerabiltzeko moduan dauden edozein jostailu jasoko dute eta trukean bizikleta baten zozketan parte hartzeko txartel bat jasoko dute.

Bizikletaren zozketa, hilaren 22ko loteriarekin batera egingo da. Bizikleta jasoko du, loteria sari nagusiaren azken bi zerbakiak dituen txartelaren jabeak. Hilabeteko epea egongo da saria jasotzeko. Arratsaldeko 18:00-20:00 orduetara gaizki datorkionak "Casa del Pueblo"-ko tabernan utzi ditzake jostailuak. Esan bezala Caritas arduratuko da banaketaz, erakundearen irizpideen arabera.



2012. urteko kultur arloko hitzarmenak sinatu ziren

Lasarte-Oriako Udaleko kultura sailak herriko Erketz EDT, Zero Sette Akordeoi orkestra, Alboka Abesbatza eta Semblante Andaluz elkartearekin 2012. urteko lankidetzak hitzarmena sinatu zituen ostegunean.

Era berean, Kukuka antzerki eta dantza eskolaren 10. urteurreneko laguntza eta Lasarte-Oria aldizkariari dagokion ere sinatu ziren.

Boris Nogales kultura zinegotziak azaldu zuenez, "aurrera 2012ko hitzarmen izanik, %36a igo da hitzarmen hauen diru laguntza Kukukaren urteurrenari, 5.000 euro, eta Lasarte-Oria aldizkariari bi aleak, 1.220 euro sartu baitira".

Dirulaguntzen irizpide aldaketak direla eta, taldeek aurreko urteetan jasotzen zuten diru kopurua aldatu dela azpimarratu zuen, "Alboka abesbatza

tzak 4.457 euroko laguntza jasoko du; Zero Sette akordeoi orkestrak, 4.102 euro; Erketz EDT-k 3.890 euro eta Semblante Andaluzek 2.412 euro".

Era berean, hurrengo urterako Kukukarekin hitzarmena egiteko lanean ari direla eta Albokaren 25. urteurreneko eta Erketzen Dantzari Txikiren 25. urteurreneko laguntza eskaerak mahai gainean daudela aipatu zuen zinegotziak.



Partidua hasi aurretik, Beltzak taldeko jokalariek guztiek talde argazkia atera zuten Michelingo berdegunean, euren entrenatzaileak alboan zituztela.



Taxio Arrizabalaga kirol zinegotziak eta Beltzak-ek Gernikari oroigarria eman zioten.



Errugbian, alboko sakeei "touch" deitzen zaie, irudian duzue bat.

Errugbiaren festa handia

Beltzak-Ostadar-Gure Etxea taldeak Gernikaren aurka debuta egin zuen zelai eraberritan

Larunbata egun handia izan zen herriko errugbi zaletuentzat. Kadete mailako Beltzak-Ostadar-Gure Etxea taldeak Euskal Ligako partidua jokatu zuen lehen aldiz Michelingo berdegunean. Partidu soila izateaz haratago, festa handia bilakatu zen estreineko norgehiagoka hori. Kiroltasuna, lehia, errespetua eta "hirugarren denbora" deritzona izan zituzten bi taldeek, egun berezi batean.

Jon ALTUNA EGITEGI

Horrenbeste borrokatu ostean, hainbeste itxarondako eguna iritsi zitzaien larunbata eguerdian errugbi zaletu lasateoriatarrei.

Gernikaren aurkakoa lehen partidua izan zen Michelingo berdegunean eta emaitza ona eskuratu zuten gainera, 24-19 irabaziz.

Zelai berriaren historian lehen uztartzea egin duena Aimar Mitxelena izan da eta Danel Gorostiaga zein Julen Aristorenak ere uztartze bana egin zuten.

Omenaldi txikiak

Beltzak-ek, gogoan eduki nahi izan zituen egun berezi honetan bai Gernikako mutilak, Zarautzeko lagunak eta taldeko beteteranoak. Gernikarrei oroigarri bat eman zitzaizen Michelinen estreinako partidua jokatu zutelako Beltzak- en aurka, eta Zarauzko lagunak eta Beltzak-eko beteteranoek sabelak betetzeko aukera izan zuten partidua amaituta Aldatzekua tabernan.

Azken hauentzat egun berezia izan zen, hainbeste urte igaro ostean errugbia berriro ere Lasarte-Orian ikustek ilusio handia eragin bai-

tzien eta harmailetan aurpegi alaiak ikus zitezkeen Beltzak- en bandera erraldoia astinduz.

Hirugarren denbora

Paritidua amaitzean, Gernika eta Ostadarreko jokalariek gazteek zein entrenatzaileek "Hirugarren Denbora" delakoa egin zuten zelaian, baina oraingo honetan talka edota lehiarik gabe.

Patxadatsu eta umore onean, partidua izandako gorabeherak kontatu zizkionten elkarri, hamaiketako ederraz lagunduta.

Izan ere, ohitura da errugbian partidua bukatuta, jokalariek elkarrekin harremandu eta kiroltasunez zer edo zer edan eta jatea. Kiroltasuna printzipio hautsiezintzat baitu errugbiak.

Helduek berriz, Aldatzekuan izan zuten sabela betetzeko aukera, Zarautz-eko lagunekin batera.



Bi taldeak sorbalda sorbalda aurka jarrita elkar talka eginez "mele"an, baloia eskuratu ahal izateko.



Juan Gorriti, Pirritx, Takolo, Porrotx, "Txapas" eta Marimotots kantuan, alai-alai.

Sentitu, pentsatu, ekin!

Herriko pailazoek disko berria aurkeztu dute

Pirritx Porrotx eta Marimototsentzat urte berezia da aurtengoa. Hogeita bost urte igaro dira sudur gorriak eta zapata handiak jantzi eta Euskal Herriko txoko ezbernetan barrena euskara eta alaitasuna zabaltzen hasi zirenetik. Urteurren berezi hau ospatzeko, "Sentitu, pentsatu, ekin!" diska aurkeztu zuten larunbatean Villa Mirentxun, laguntxo ugariz inguratuta.

Jon ALTUNA EGITEGI

Mende laurden igaro da herriko pailazoek euren jarduna hasi zutenetik. Lehen pausu horiek Lasarte-Orian eman ostean, herriz herri dabilta gaur egun Euskal Herriko txikitxoei marrubizko muxuak eman eta txokolatezko irriak marrazten.

25 urteko jarduna eta bizitako abentura zirraragarriekin omen egiteko disko berezia grabatu dute Orkestra Sinfonikoarekin batera. Ez da nolana hiko diska, urte guzti horietan sortutako abestien bilduma baita, musika klasikoaren kutsu berezi bat duena.

Lagunen kolaborazioak

Orkestrarako doinu guztiak Xabier Zabala musikariak moldatu ditu, eta bera aritu da zuzendari lanetan.

Guztira 17 kanta eta 17 ipuintxorekin osatu dute diska. Eta betiko lez, laguntxo ugari izan dituzte alboan

lana aurrera eramateko. Besteak beste, eurekin izan dituzte Takolo historikoa (Agustin Mujika), Donostiako Orfeoi txiki eta gazteko lagunak eta Euskal Herriko hainbat bertsolari eta musikari ezagun. Tartean, Amets Arza-

llus, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Eñaut Elorrieta, Aitor Grosabel, Oreka TX...

Ez horiek bakarrik, urteurren berezian alboan izan dituzte Julian Tokero eta Juan Gorriti diseinatzaileak, Irizarreko lagunak, Ttakun, Lasarte-Oriako Udala...

Urte hauetan guztietan, pailazoek kultur emaria oso zabala izan da eta aurrerantzean ere, bide beretik jarraitzea espero dute Pirritx, Porrotx, Marimotots eta inguratzaren dituzten lagun guztiek. "Bihotza, burua, eskuak... Sentitu, pentsatu, ekin!"



Villa Mirentxun egin zuten aurkezpenak ikusmina sortu zuen.



Juan Gorriti artistak diseinatutako kamioia estreinatu zuten aurkezpena hasi aurretik, "Sentitu, pentsatu, ekin!" leloa darama idat zita, hau ere Gorritirena da.



Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ATLETISMOA.-

Txapelketa handiak prestatzen

Infantil eta alebin mailetako atletak gazteak ederki hasi dute pistako denboraldia

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko atleta gazteak lan eta lan dabilta. Infantil eta alebin mailako gaztetxoak pista denboraldiko lehen probatan parte hartu dute. Lehengo asteburuan Hernanin izan ziren lehiaketa eta ederki ibili ziren Amaia Andresek zuzentzen dituen gaztetxoak.

Nerea EIZAGIRRE

Urria hasieran entrenatzen hasi ziren Landaberri ikastola eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko eskolarteko mailako atletak eta aste hauetan hasi dira lehiatzen. Amaia Andres eta Gaizka Ormazabal entrenatzailearekin izan gara taldeen berri izan eta pistako denboraldia nola joango den jakiteko.

Pozik agertu da atletismo-taldeko arduraduna. Izan ere, aurten 20 alebin eta 4 infantil taldeak daude. "Infantil taldea ahul geratu da, baina normala da iazko bigarren urteko infantilak mailaz aldatu direlako," azaldu digu Amaia Andresek.

Aipatu digunez alebin eta infantil taldeak ederki egiten dute lan, "entrenamendura datoz ia gehienak eta lan ona egiten dute hauetan. Beraz, pozik gaude".

Benjaminetan, berriz, 15 gaztetxo daudela adierazi digu Gaizka Ormazabal tal-

dearen arduradunak. "Taldea aktiboa da eta aurten gainera neska bako bako mutil gehiago daude" azpimarratu du.

"Ez da ohikoa adin horretan mutil asko egotea, gehienek futbola aukeratzen dute" aipatu digu Amaia Andresek.

Denboraldi hasiera

Lehengo urrian alebin eta infantilak proba libreetan lehiatzen hasi zirela aipatu jakin arazi digu entrenatzaileak.

Azaldu digunez, "orain lehenengo fasean gaude. Buruntzaldeko talde batzuk lehiatzen gara. Baina ongi datoz eskolarteko txapelketak prestatzeko".

Gauzak honela, bi lehiaketetan izan dira herriko gaztetxoak.

Urriaren 20an, Anoetako Belodromoan izan ziren. "Honetara taldekide gutxi hurbildu zen, Euskararen Maratoia zela eta, baina infantilak ederki ibili ziren. Gure helburua jautsian, laster-



Lasarte-Orian ere izango da aukera atleta gazte hauen trebezia ikusteko. Abenduan izango da hori.

ketan eta pisuan egitea da eta ongi ibili ziren hiruretan," aipatu digu entrenatzaileak.

Lehengo astean, berriz, Hernanin izan ziren lehiaketa. Guztiek lan ona egin zutela aipatu digu Amaiak. Baina aipatzekoak dira infantil mailan jabalina jautsian Amaia Hartok lortutako lehen postua, Asier Olmosek jauzi hirukoitzan eta 200 metro hesi-lasterketan egindako bigarrena edo alebinetan, Nerea Eugik altuera jauzian lortutako bigarren postua.

Honetaz gain, 60 m. hesi-lasterketetan "Ainhoa Heredero, Nerea Eugi eta Naroa

Furundarena haien serietan irabazle izan zirela ere esan behar da".

4x60m errelebo taldeek ere lan ona egin zuten. Alebin mailako nesketan Landaberri B irabazle izan zen eta infantiletan, Sasoetako nesken taldea hirugarren izan zen. Hernani eta Landaberriko atletak osatutako taldeak ere postu berdina lortu zuen mutilen lasterketan.

Lehiaketak ia astero

Gauzak honela hilabean bi edo hiru lehiaketa izango dituztela aurreratu digu entrenatzaileak. Esate baterako

"aste honetan, proba zuten belodromoan eta igandean Irungo krosa, baina haurrak ez kargatzeko belodromora ez joatea erabaki dugu".

Honetaz gain, benjaminek bi hilabete behin izango dituzte probak. Gaizka Ormazabalak azaldu digunez, "hauek topaketak dira eta lehiaketa zer den ikasteko balio dute".

"Abenduan Lasarte-Orian topaketa antolatuko da," aurreratu digu Amaiak. Era berean, herriko atleta gaztetxoak jakintza ikastolako ikasleen aurka lehiatu ahalko direla aipatu digu.

PILOTA.-

Arrasaten erabakiko da Intzaren etorkizuna II. mailan

Intza ataka estuan aurkitzen da, hurrengo urtean berriz ere Gipuzkoako II. Senior mailan egotea jokatzeko ari baitira. Joan-etorriko bi partida jokatu behar dituzte Arrasateren aurka jaitziera fase gogorrean.

Lehenengo larunbat arratsaldean jokatu zuten Michelingo pilotalekuan, eta oraingoz kanporaketa ondo hasi du herriko taldeak. 22-18 irabazi zuten partida nor-gehiagokatu estu baten ostean.

Izan ere, herriko taldea partida osoan aurretik ibili bazen ere, azkenean kosta egin zitzaion partidua itxia behartu gabeko huts batzuk tarteko.

Abantaila laburra

Jose Felix Solano Intzako prestatzailearen esanetan, etxean

lortutako markagailua ez da "inondik inora" erabakigarria, lau tantoko alde "laburregia" dela uste du kanporaketa bideratuta dutela esan ahal izateko, hala ere, pozik ageri zen bere mutilen lanarekin.

"Hurrengo astean Arrasaten dena eman behar dugu, ez dago oraindik ezertxo ere erabakita, eta 22 tanto egiten lortu behar dugu kosta ala kosta", zioen Solanok partidua amaituta.

Izan ere, Arrasaten ostiral iluntzean jokatu den partiduan kasualitatez emaitza 22-18koa balitz arrasatearren alde, kanpoan geratuko litzateke herriko taldea, Arrasate baino koska bat beherago amaitu baitzuten liga erregularrereko sailkapenean.



Aitor Aranburu Intzako aurrelaria sarea egitear Arrasateren aurka larunbatean jokatu den partiduan.

Agenda

Astelehena 19-Osteguna 22, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur-etxea



Osasuna zainduz

Lasarte-Oriako Udalak antolatuta XX. Osasun jardunaldiak. Egutero osasun arloko aditu batek eskainitako hitzaldi interesgarria entzun ahal izango da:

Astelehena 19, Agifeseko lagunak buruko arazoei nola aurre egin azalduko dute.

Asteartea 20, erlaxazio tailerra izango da Naiara Urkizuren eskutik

Asteazkena 21, Egoitz Garro makrobiotikoak garaiko elikaduradi buruz hitz egingo du

Osteguna 22, Osasun zentroko zuzendaria Enrike Contreras eta Roza Gainza eriazina izango dira arrisku kardiobaskularrei eta gripearen txertoari buruz hizketan.

indarkeriaren aurkako eguna dela eta, ekintza egitarau zabala antolatuta du aste honetarako.

Diaporama

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Asteazkena 21, 21:30etan

Maite Salazarrek Perun bitziko esperientzia kontatuko du. Ttakun kultur elkarteak antolatzen duen Diaporama sortaren barruan.

Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 22, 18:00etan

Pello Añorgak 4 eta 5 urteko haurrei ipuin bitxi eta dibertigarriak kontatuko dizkie.

Sari-banaketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 24, 12:00etan

Lasarte-Oriako heldu, gazte eta haur Literatur lehiaketako sari-banaketa izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 22, 21:30etan

Ostegun zinea atalaren barruan, "Melancolia" filma eskainiko da Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 25, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Diario de Greg 3: Dias de perros" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 25, 19:30etan

Helduen zinea atalaren barruan, "Melancolia" filma eskainiko da Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro. Gaztelaniaz.

Musika

HERRIKO KALEETAN ZEHAR

Asteartea 20, 18:30etan

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako Santa Zezilia eguna, musikarien zainzailearen eguna ospatzeko kalejira antolatuta du erdialdeko kaleetatik barrena.



ARANTZAZUKO AMA ELIZA

Igandea 25, 12:30etan

Alboka Abesbatzak Santa Zezilia eguna ospatzeko meza nagusia girotuko du.

Genero Indarkeria

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Astelehena 19-Igandea 25

Emakumeen Zentro Zibikoak, genero

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Azaroan zehar

Goizane Mendizabal oiartzuarraren argazki erakusketa berria ikusgai izango da.



Herritarren txokoa

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan azaroaren 26an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara.

Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Loteria eta barrikotea

Lasartearra elkarteak bazkide eta elkarteko lagunei gogora arazten die, Gabonetako Loteria salgai duela. Loteria txartelak eskuratu nahi dituzten herritarrek elkarteko bulegora, Erribera kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira astelehenetik ostiralera 18:00etatik 19:00etara.

Era berean, abenduaren 1ean ohiko barrikotea antolatuta duela jakitera ematen du. Izena emateko azken eguna azaroaren 26a da.

Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak

Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira: atril bat, 2 jertse, Obrint pas taldearen txapa duen txaketa bat eta aterki bat. Gauza hauen jabeak Ttakun elkartetik hurbil daitezke jasotzera.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak, ezkontza eraztuna, eguzkitako betaurreko, bi telefono mugikor, MP3 bat, mikrotxipak dituen plaka bat eta emakume beroki bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Korrika egiteko talde amateurra

Lasarte-Oriako korrika egiteko talde amateurra sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Hitzordua, ateri dagoen astelehenetan 20:00etan Hipodromoko zubian. Barrazkilo eta bareak animatu!

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oriako auzo elkarteak antolatzen duen marrazki eta margo ikastaroko klaseak eskaintzen dira astezken eta ostiraletan 18:30ak eta 20:30ak bitartean Manuel Lekuonako 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezke klase orduetan.

Sarean

Euskarazko doodle-a

Interneten bilatzaile ugari daude baina erabilienean, Google dugu.

Honek egun berezietan, bere logotipoaren irudia edo doodle-a aldatzen du. Hala nola, urte hasieran San Sebastian egunean danborjole baten irudia ikusi ahal izan zen eta duela egun gutxi, Bram Stokerren 165. urteurrena ospatu zuten bere pertsonaia famatuaren irudia jarri.

Hau honela izaki, Eusko Ikaskuntzak mundu osoan gure hizkuntzak presentzia izan dezan proposamena luzatu du, Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an Euskal doodle-a jartzea.

Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) Eusko Ikaskuntzaren baitan 1949an sorturiko ekimena da. Erakundeak euskal hizkuntzaren unibertsaltasuna aldarrikatzen du eta ekimen honen bitartez, mundu osora zabaltzeko aukera ikusi du. Izan ere, logotipo edo doodle horrek euskarari buruzko informaziora izango baidute lotura.

Googlek ideia aintzat har dezan sare bidez sinadura bilketari ekin zion erakundeak urriaren 30ean; ia 19.000 bat izen-abizen dituzte dagoeneko. Abenduaren 1a bitartean jasoko ditu sinadurak Euskal Ikaskuntzak. Ondoren, abenduaren 2an Google-ri helaraziko dizkio sinadurak eta eskakizuna.

Kanpainan parte hartzea oso erraza da. www.eusko-ikaskuntza.org/ene/ orrialdean sartu eta eskakizuna sinatzea besterik ez da.

Esker gisa, atxikimendua ematen duten guztien artean, HABEren agendak eta egutegiak zozketatuko dituzte sinatzaile guztien artean.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Maite Salazar Irakaslea

“Kontraste handiko herrialdea da Peru”

Maite Salazarrek hiru hilabeteko egonaldia egin du Perun, San Juan de Lurigancho distrituan

Ttakun Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen Diaporama saioak hasiko dira asteazkenean. Lehenengo Maite Salazarren eskutik izango da Jalgin 21:30ean. Herriko gaztea Perun izan da hiru hilabetez lanean eta bertan bizitakoak azalduko ditu argazkien laguntzarekin. Emanaldi polita prestatu duela aurreratu digu.

Maider AZURMENDI

Maite Salazar irakaslea da, Heziketa Fisikoan eta Haur Hezkuntzan da titulatu eta Perura hain zuzen hezkuntza arloan lan egitera joan zen Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarekin.

Perun, Liman, San Juan de Lurigancho distrituan egon zen hain zuzen eskola desberdinetan psikomotrizitatea eta gorputz hezkuntza saioak ematen. Han bizitakoak ez du ahaztuko eta horregatik gogotsu dago bertan bizitakoak Diaporaman erakusteko.

Nolatan Perura joatearena?

Perura hala egokitu zitzaidalako. Gogoia neukan halako esperientzia bat bizitzeko eta Jaurlaritzaren Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa ezagutzen nuen, honetan izena ematera animatu nintzen.

Guztira 100 plaza zeuden herrialde ezberdinetara jendea joateko eta noski aurkeztutakoak gehiago izan ginen. Hasieran ez nuen pentsatzen aukeratu izango nintzenik baina azkenean bai.

Jaurlaritzak aukeraketa prozesua egiten du izena ematen dutenen artean. Lehenik zure profila baloratzen dute, ondoren asteburu bat eman genuen Barrian talde dinamikak egiten eta hor hautatu zituzten joango zirenak.

Hautatua izan nintzen eta bigarren asteburu bat egin behar izan genuen talde dinamikak eta bestelakoak egiten, orduan esan ziguten bakoitzari egokitzen zitzaigun herrialdea eta proiektua. Oso pozik hartu nuen Peru.

Zer egin duzu han?

Zehazki San Juan de Lurigancho distrituan egon nintzen, Peruko distrito populatuenean. Guztira sei lagun joan ginen hara eta binaka aritu ginen lanean proiektuetan. Beste kide batekin Haur Hezkuntza hiru eskola ezberdinetan psikomotrizitatea eta

Lehen Hezkuntza eskola batean gorputz hezkuntza saioak ematen genituen.

Nolako esperientzia izan zen?

Lehenengo kontaktua Lehen Hezkuntzako eskolarekin izan genuen eta lehenengo egunak oso txokanteak izan ziren.

Guk hartu genituen haurrak, sei eta hamabi urte artekoak, ikasturte guztia zeramaten soinketa gabe zegoen irakasle bakarra ez zelako iristen talde guztietara. Suposatzen zen tutoreak nolabait bideratzen zuela soinketa saio moduko bat patioan baina ez zen oso serioa edo.

Goizetan ordu eta erdiko saioak egiten genituen 1go, 2., 3. mailatan eskolara soilik goizez joaten direlako eta arratsaldetan 4., 5. eta 6. mailakoekin, euren eskolak arratsaldez dira beti.

Hasieran dena hain berria izanda guretzat kaos izan zen. Ez genuen hango hezkuntza sistema ezagutzen eta kokatzea garrantzitsua izan zen. Gero, hemen haurrei borobilean jartzea eskatzen zaienean momentu batean jartzen dira saioa hasteko baina han errotua beste bat da eta honetara ere ohitu egin behar da bestela akabo.

Behin martxa hartuta hobeto?

Bai gero oso ondo. Berehala konturatu ginen zeintzuk ziren haurrak gehien motibatzen zituzten ekintzak eta horietan oinarritzen genituen saioak. Gainera umeak oso adeitsuak ziren gurekiko eta oso maitekorrak.

Haur Hezkuntzako hiru eskoletan ere egiten genuen lan eta deigarria egiten zitzaigun hiru eskolen kudeaketa zein desberdina zen.

Batean irakasleak oso inplikaturik zeuden hezkuntzarekin, umeekin eta gurekin bilerak eta balorazioak egiten zituzten umeen jarraipen zehatza egiteko, ekintzak proposatzen zizkiguten.

Besteetan berriz oso bestelakoa zen jarrera, kasu egiten zirenean baina ez ziren gehiegi



Egunero auzoko haurrekin jolastera ateratzen zen Maite, argazkian makurtua dagonea, bere kideekin batera.

sartzen egiten genuenarekin ezta haurrekin ere.

Kooperante guztiak elkarrekin bizi zineten?

Bai oso ona hasieratik. Beraiek ere ohituta daude kooperanteak bertan egotea. Suposatzen da Peruko zonalde arriskutsuetako bat zela eta guk ez dugu arriskurik sentitu, alderantziz lehenengo egunetik zazpi haur genituen hantekatik zintzilik, oso atseginak eta maitekorrak izan dira gurekin. Lana amaituta auzoko haurrekin jolastera ateratzen ginen kalera eta ekintza ezberdinak ere burutzen genituen helduekin tailerrek zein soinketa ariketak.

Bizilagunekin harremana ona izan zenuten?

Bai oso ona hasieratik. Beraiek ere ohituta daude kooperanteak bertan egotea.

Suposatzen da Peruko zonalde arriskutsuetako bat zela eta guk ez dugu arriskurik sentitu, alderantziz lehenengo egunetik zazpi haur genituen hantekatik zintzilik, oso atseginak eta maitekorrak izan dira gurekin. Lana amaituta auzoko haurrekin jolastera ateratzen ginen kalera eta ekintza ezberdinak ere burutzen genituen helduekin tailerrek zein soinketa ariketak.

Atentzioa gehien deitu dizuna zer izan da?

Lehenengo gauza haurrak nola zu ezagutu gabe lehenengo egunetik nola gertatzen zaizkizun. Gero gauza

Diaporamak

Azaroak 21:
Maite Salazar Peru

Azaroak 28:
Oihana Beltran Cambodia- Vietnam

Abenduak 12:
Ostadarreko Mendizaleak Maroko-Atlas

Abenduak 19:
Aitzol Lasa Begirada bat Palestinara

21:30ean Jalgin izango dira saioak

asko noski, oso desberdina da, kalean pilatzen den zikinkerri pila, ia beti lainotua egotea, horrek berez giro triste eragiten zuen baita txirotasuna ere.

Hezkuntzan, zentro batetik bestera dauden aldeak eta adibidez eskola barruan, patioan goxoki denda bat egotea, hasieran soinketa saioak egitea atera eta haurrak korrika joaten ziren gozokiak erostera edo irakasleek bilerak ordu lektibotan egitea haurrak patioa bidalita.

Kuriosoa zen ere haurrak formatu eta ereserkiak abesten ikustea, astelehen eta ostiraletan egiten zuten.

Turismoa egiteko aukera izan duzu?

Asko ez baina bai tarreak atera ditugu eta mendi aldean ezagutzera joan ginen besteak beste.

Natura ikusgarria da han eta kontraste handiak daude batetik bestera. Mendira igo eta izugarritzko hotza, oiha-

nean barrera sartu eta beroa, hezetasuna...

Paisaia eder horiek ere erakutsiko ditut asteazkeneko saioan.

Esperientzia errepikatuko zenuke?

Esperientzia bai baina agian beste herrialde batera joango nintzateke. Beste bizimodu batzuk ezagutzera joango nintzateke.

Diaporaman zer ikusi ahal izango da?

Esan bezala oso murgilduta bizi izan nintzen hango nire egunerokoan eta nire esperientzia azalduko dut, hangoen bizimodu, egunerokoak kontatuko ditut. Horretaz gain Peruko paraje eder batzuk ere ekarriko ditut.

Diaporamak nire ustez aukera oso ona dira munduan zehar dauden txokak eta bizitzeko moduak etxetik mugitu gabe ezagutzeko. Agian hortik jendeak informazio baliagarria jasoko du bere bidaiak egiteko.